

H



HAURRENTZAKO LIBURUAK  
MIKELEN BASERRIA



KUKURRUKU sorta 3

Egile: M. Josefa Zabalegi  
Marrazkiak: Oinati eta Legazpiko ikastolako haurrak  
ISBN: 84-7277-019-2

Mikel "ERROTA" baserrian  
bizi da/ "ERROTA" baserria  
handia da.



Mikel urrun bizi da kaletik.

" ERROTA " baserria mendi  
artean dago, erreka baten ondo  
an.

Urrun: urruti, urrin.


Mikel oso pozik bizi da bere  
baserrian.



Errekan amuarrain asko da-  
bil.



Mikelek amuarrain asko ha-  
rrapatzen du.

Mikelek berak ematen die ja-  
naria abere hauei.




Berak ateratzen ditu behiak  
larrera.

Egun batez, ikastolako haur guztiak beren andereñoarekin "ERROTA" baserrira joan ziren.



Mikelek baserria erakutsi zi  
en:

Ganbara, mandioa, lan tres-  
nak, abereak, ikusi zituzten



Abereak nola jaiotzen diren,  
nola hazten diren den dena a-  
gertu zien Mikelek.

Egun batez, ikastolan zeudela, leihotik erre usaina hartu zuten. Erre usaina, erre usaina ...



"Etxe bat erretzen ari da, etxe bat erretzen ari da", esaten du Imanolek.




Mikel berehala konturatu zen.  
 "Nere baserria erretzen ari  
 da" dio Mikelek negarrez.




Denak korrika abiatzen dira  
 baserrira.

Baserrira heldu eta abereak  
ateratzen hasi ziren, presaka.




Ondoko baserrietako lagunak  
ere korrika etorri ziren.

Sua handia zen. Lan asko egin zuten denek, bainabaserria oso osorik erre zen.



Abereak eta one batzuk at-  
ra zituzten.




Mikel eta bere gurasoak etxe-  
rik gabe, oso triste geratu zi-  
ren.

Ikastolako lagunak, etxe berria egiteko, dirua biltzen hasi ziren.



Herriko etxe guztietara joan ziren.

Beste herrietan ere dirua bil-  
du zuten.



Apaiza ere diru eske hasi da  
Denak prest daude laguntzeko

Diru asko bildu dute.

Etxe berria egiten hasi dira.



Lehengo baserriaren ondoan  
hasi dira berria jasotzen.

Baserri berria egin dute.


Lehengo baserria baino handiagoa, politagoa.




Mikel eta bere gurasoak oso pozik gelditu dira.



Ikastolako lagunak etxe berria  
ikustera joan ziren,




Mikel honela mintzatu zen:  
"Eskerrik asko zuen laguntza-  
gatik, ez naiz behin ere ahaz-  
tuko"



Beharrean dagoenari lagundu  
egin behar zaio.

Denok besteei laguntzeko gau-  
de.



Ikastolako irakaslea ere pozik dago.



Bere ikasleak neska mutiko jatorrak dira.



PATXI  
BERE

ETA

EHIZTARIA  
TXAKURRA



Egile: Anton Amondarain

Patxi mutiko txiki eta azkarra da.

Ikastolara joaten da egunero.




Begiak bizi biziak ditu eta hankak arinak.

Sei urte ditu eta ehiztaria da.

Ehiztaria: animaliak harrapatzen dituena.

Patxiren etxean LODI izene-  
ko txakur bat bizi da.


Patxiren laguna da eta bera-  
rekin joaten da ehizan.



Ehizan: animaliak harrapatzera.

LODI txakur handi bat da.

Hankak handi handiak, luze luzeak ditu.



LODI oso korrikalari ona da.

LODIk arineketa asko egiten du.


Arineketa: karrika, lasterka.



Patxiri ehiza asko gustatzen  
zaio.




LODI eta bien artean xori as-  
ko harrapatzen dute.




Ikastolatik irten eta egunero  
ehizera joaten da.

Eskupeta eta txakurra hartzen ditu eta mendira joaten da.



Batzuetan bere aitak ere laguntzen dio.

Basoan txori asko ibiltzen da.



Patxik bere aitari txori bakoitzaren izena galdatzen dio.

Galdatu: itaundu, galdetu.

Honela txori mota asko eza-  
gutu du:

Txantxangorriak

Txolarreak


Enarak

Eperrak

Galeperrak

Zozoak

Usoak . . . . .



Mota: era, klase.

Txolarreak: gorrionak.

Udazkeneko egun batez Patxi, LODI txakurrarekin ehizera joan zen.



Zuhaitz baten gainera igo zen, txorien zain.


Halako batetan Patxik txori  
bat ikusten du, xori beltz bel-  
tza. Orduan Patxik PUN,  
PUN . . .



Txoria lurrera erortzen da.

Erori: jautsi.

LODIk ikusi zuen txoria erortzen eta korrika txoriaren bila joan zen.



Ahoan hartu zuen zozoa eta korrika korrika Patxiren ondora etorri zen.



Xoria handia zen. Potolo potoloa zegoen.



Lepoa odolez gorrituta zedukan.


Oraindik bero beroa zegoen.

Beste batez tiro asko egin zuen, baina txoririk ez zuen bo-  
ta.



LODI zaunkaka zegoen. UAU.. UAU.. UAU....

Arratsalde batez bere aitarekin joan zen basora.



Han zegoela txori pilo bat ikusi zuen.


Pun, Pun, eta zer poza: bi txori erori ziren! .

Hauek txolarreak ziren.



"Okela bigun biguna dute txo-  
ri hauek", esaten dio bere ai-  
tak.

Beste txoria bere Ikastolako lagunei eman zien.



Patxik bere lagunei gertaera kontatu zien.

Gertaera: gertatua, pasatutakoa.

Lagunak oso pozik entzun zuten Patxik kontatutako gertaera.



"Hemendik aurrera denok joango gara ehizera", esan zuen Patxik. Bai, denok, denok .....